

HARREMANAK

Bezeroekiko komunikazioa:

MindUp-ek gazteekin harreman hurbil, positibo eta interaktiboa ezarriko du. Horretarako, hainbat komunikazio-kanal erabiliko dira:

- Aplikazioaren barruan: erabiltzaileek mezu pertsonalizatuak, aholkuak eta eguneroko erronkak jasoko dituzte. Adibidez, erabiltzaile batek antsietatea kudeatzeko erronka bat amaitzen badu, aplikazioak zorion-mezua bidaliko dio edo gomendio berriak eskainiko dizkio.
- Sare sozialak: Instagram eta TikTok plataformetan, MindUp-ek eduki motibatzaileak, bideo laburrak eta aholku psikologiko errazak partekatuko ditu. Horrela, gazteekin harreman zuzena eta jarraitua bermatuko da.
- Podcast-ak: interesa duten erabiltzaileek astero email bidez edo audio laburren bidez erlaxazio-teknikak eta inspirazio-mezuak jasoko dituzte.

Helburua da erabiltzaileek entzunak eta lagunduak sentitu daitezen, eta aplikazioa bera euren eguneroko ongizatearen parte bihurtzea.

Harreman pertsonala:

MindUp-en helburua da erabiltzaileak babestuta eta entzunak senti daitezen.

Horregatik, aplikazioak laguntza pertsonalizatua eskainiko du:

- Bezeroek galderak egin edo zalantzak argitu ahal izango dituzte txat bidez edo posta elektronikozko arreta-zerbitzuaren bidez.
- Premium erabiltzaileentzat, ongizate-profesional batekin harreman zuzena izateko aukera eskainiko da (aholkularitza laburrak edo jarraipen-saioak).
- Harreman mota hau aukeratu da, gazte askok laguntza emozionala behar dutelako, eta MindUp-ek konfiantza eta enpatia transmititu nahi dituelako.

Harreman automatizatua:

MindUp-ek zerbitzu automatizatuak ere izango ditu, erabiltzaileek euren kabuz baliabideak eta gomendioak aurkitu ahal izan ditzaten:

- Aplikazioaren autozerbitzua: erabiltzaileek erronkak, ariketak eta musika hautatu ahal izango dituzte euren egoera emozionalaren arabera.
- Mezu automatiko positiboak eta aholku pertsonalizatuak: sistemak berak bidaliko ditu, erabiltzailearen jardueraren arabera.

Horrela, laguntza etengabea eta une oro eskuragarria izango da.